

LITERATURA. Haurrentzako lau liburu eta kronika bilduma bat kaleratu dituzte Elkarlanean, Pamiela eta Araberak

Etxanizek 60 ipuin tradizional jaso ditu 'Geure ipuinak' liburuan

Barandiaran, Azkue edota Ariztiaren istorio ezezagunak berreskuratu ditu idazleak

Eduarne Elizondo | IRUÑEA

Pamiela Nafarroako argitale-
txeak *Geure ipuinak* liburua aur-
keztu du, Tamaina Ttikia saila-
ren baitan. Xabier Etxaniz Erle-
rena da edizioa, hark bildu baiti-
tu liburuan agertzen diren Eus-
kal Herriko ipuin tradizionalak,
hainbat iturritik, eta marrazkiak
Jokin Mitxelenak egin ditu.

«Asko ezagutzen ez diren is-
torioak bildu ditut, sakabanatu-
ta dauden Euskal Herriko ipuin
zoragarriak irakurleen eskura
jartzeko asmoz», azaldu zuen
Xabier Etxanizek liburuaren
aurkezpenean.

Denera 60 ipuin jasotzen ditu
lan berriak, Etxanizen hitzaurre
eta gibel solasarekin batera. Az-
ken horretan liburua osatzeko
erabili dituen iturri edo «ipuin
biltzaileak» aipatu ditu Oñatiko
idazleak.

Sei dira biltzaileak: Jean
Francois Cerquand, Pauen Bor-
deleko Akademiaren inspekto-
rea izan zena; Wentworth
Webster, Eskozia, Alemania,
Suitza eta Egipton ibili ondoren
Euskal Herrira, Miarriztera,
etorritako apaiz anglikanoa;
Jean Barbier, Senpereko erre-
tore eta idazlea; Resurreccion
Maria Azkue euskaltzain eta
euskal folklореaren ikertzailea;
Mayi Ariztia saratarra; eta, az-
kenik, Joxe Migel Barandiaran
ezaguna.

Ipuinak hainbat euskalkitan
jaso ondoren euskara batuaz
idatzi ditu Xabier Etxanizek
Geure ipuinak liburuan, baina,


betiere «euskalki bakoitzak
duen hizkera eta joskera erres-
petatuz». Lan horretan, Patxi
Salaberri, Manu Lopez eta Txi-
pi Ormaetxea filologoek lagun-
tza izan du Etxanizek.

Ipuin bertsuak mundu osoan

Ipuinen mamiari dagokionez,
Euskal Herrian ere nazioartean
ezagunak diren ipuinen ber-
tsioa dugula azpimarratu zuen
Xabier Etxanizek. «Guk ere ba-
dugu Aladinoren kriseilu magi-
koa, eta badugu gure Mari
Errauskin», erran zuen edizioa-
ren egileak.

Bestalde, ipuin tradizionalak
nolabaiteko ideologia transmi-
titzen dutela esan ohi dela go-
goratu zuen Etxanizek, eta, ildo
horretan, norberak ipuinak «in-
terpreta» ditzakeela nabarmen-
du zuen. «Euskal Herriko ipuin
tradizionalak kutsu erlijiosoa
dute, biltzaileak apaizak edo er-
lijio-gizonak zirelako. Beste he-
rrietan maitagarriak direnak,
Ama Birjinak dira gurean. Hala
ere, ipuin bat kontatzean norbe-
rak erabaki dezake pertsonaiak
nolakoak diren», gaineratu
zuen.

Ipuin tradizionalak munduko
txoko guztietan helburu berare-
kin sortu zirela azpimarratu
zuen Etxanizek, hau da, «giza-
kiaren barruko kezkei erantzun-
teko». Ipuinen funtzioa hori
izan zen XVIII. mendera arte.
«Gero, zientziaren garapenare-
kin eta erlijioaren zentsurare-
kin, ipuinen funtzioa estetikoak
besterik ez zen izan».



JOXE LACALLE

Euskal Herriko ipuin tradizionalak bildu ditu Xabier Etxanizek *Geure ipuinak* liburuan.



EDURNE KOCH

Mariasun Landa, Joxeantonio Ormazabal eta Juan Kruz Igerabide..

Haurrei zuzenduriko liburu bana argitaratu dute Landak, Ormazalek eta Igerabidek

Ainhua Diartzabal | DONOSTIA

Elkarlanean etxearen Kuku
sailaren baitan, haurrentzako
liburu bana argitaratu dute
Mariasun Landa, Joxeantonio
Ormazabal eta Juan Kruz Ige-
rabidek: *Joxepi dendaria*, *Amo-
na bizikletan* eta *Durango, Du-
rango*. Liburuaren ilustrazioak,
hurrenez hurren, Asun Balzo-
lak, Jokin Mitxelenak eta Mi-
kel Valverdekin egin dituzte.

Mariasun Landaren *Joxepi
dendaria* liburua 1984. urtean
idatzitako ipuinaren berrargi-
talpena da. Egileak atzo azal-
du zuenez, «eta ez nuen kon-
tzentzienteki egin», haurrei asko
gustatzen zaien gai bat ukitzen
du bertan: denda. Landaren
benetako izeba Joxepi eta ha-
ren denda abiapuntu hartuta,
istorio fantastiko bat konta-

tzen du. «Eta konturatu gabe
gai unibertsal bat tratatzen
dut; denda txikiek handien au-
rrean duten problematika, ale-
gia», zioen idazleak. Ipuin hori
hainbat hizkuntzatara itzuli
diote.

Emakume heldu bat bizikle-
ta gainean ageri zen marrazki
bat ikustean otu zitzaion Or-
mazabali *Amona bizikletan*
ipuinak idaztea. Amona aursar-
ta eta burugogorra da ipuine-
ko protagonista. Amona hori
hilik dagoen aitona azaltzen
zaio ametsetan, «baina herio-
tza, kontaketa osoa bezalaxe,
umorez tratatzen da».

Igerabideren *Durango, Du-
rango*-k Mexikoko Durangoko
oilanda baten eta Bizkaiko Du-
rangoko oilar baten arteko
maitasun istorio bat kontatzen
du, «topikoei barre eginez».

Iñaki Gurrutxagak kronika landu du 'Gabon, Gasteiz' bere lehen liburuan

Ivan Santamaria | GASTEIZ

Hemeretzi urterekin kalean
du jada bere lehen argitalpe-
na Iñaki Gurrutxagak,
Gabon, Gasteiz izenpean.
Sortzez oriotarra da, baina
azken urtea Arabako hiribu-
ruan igaro du, ikasketek hala
behartuta. Haatik, ondo
baliatu du denbora, eta atzo
aurkeztu zuen idatzi duen
lehen liburua, Arabera argi-
taletxearen eskutik.

Gabon, Gasteiz lanak
hogeita bi kronika eta konta-
kizun motz jasotzen ditu.
Guztiak, Hala Bedi irrati
libreko *Pareak bai* saioan
aurretik eskainitakoak. Hori-
xe izan baitzen liburua egite-
ko aitzakia. «Liburua ezuste-
an sortu zen, Gasteizera iritsi
bezain pronto eskaini baitzi-
daten kontakizun horiek
idazteko aukera», gogoratu
zuen idazle gazteak. Libu-
ruaren izenak berak irra-
tsaioarekin zerikusia du,
hura hasteko lehen hitzak
baitziren.

Egunkarietan kaleratuta-
ko albiste bat da kontakizu-
naren abiapuntua, astean
behin idatzi beharra ez bai-
tzaio sormenezko lanari
gehiegi egokitzen. Ez dira,
ordea, puntako albisteak;
«orrialdearen izkinan daude-
nak nahiago ditut», azaldu
zuen Gurrutxagak. Gainera,
gehienetan Gasteiz hiria
bera da albistearen jatorria
eta eszenatokia.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

EUSKARAREN EKIMEN ESTRATEGIKOAK DONOSTIAKO PLAN OROKORRA

2001eko urtarrilaren 31 arte herritarrek aukera izango dute "Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra" aztertu eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatu dokumentua eskura izango da Donostiako Euskararen Udal Patronatuko bulegoetan.

Konstituzio plaza, 6 behea - 20003 Donostia
Telefona: 943 42 47 17